



**EUSPEL**  
EUSKAL POLIZIEN ELKARTASUNA

2014ko uztailak 29 a

**Mikel Serrano Aperribay**  
Zumarraga Udaletxeko Alkatea

Alkate jauna:

ELA, SiPE eta EUSPEL Ertzaintzako sindikatuok, Segurtasun Sailburuak - hitz leungarri hauek etengabe erabiliz\_ ertzainetxeen kudeaketa elkarbanatuaren onurak iritzi publikoari adierazi dizkio. Honek Zumarragako Ertzainetxeari eragingo liokenez, eta, baita, bere eragingo eremu guztiari ere, ondorengo jakinarazi nahi genizuke:

Segurtasun Sailak, behin eta berriro, Ertzainetxeen itxiera egiten dela ukatzen badu ere, azpikeriazko itxiera egiten ari direla esanez egiten dugun salaketan berresten gara. Esate baterako, Zumarragako Ertzainetxean herritarren arreta 24 ordukoa izatetik bulego ordutegiko zerbitzua izatera pasako da. Prebentzio arloan hiru patruila izatetik bat eta erdi izatera pasako lirakeke, erdi hau Oñatirekin erdibanan. Egoera honetan - begibistakoa da- herritarrei ematen zaion prebentziozko zerbitzua murrizten da. Egoera hau delitua jasan duten pertsonetan are larriagoa da, izan ere, alde batetik, prebentzio ezagatik delitua jasan du, eta, bestalde, abandonatua eta berari gertatu zaionarekiko interesik ez dagoela sentitzen du. Honetan, berriz, Ertzaintzako agenteek ez dute inolako erantzunkizunik.

Salatzen dugu horrelako gai garrantzitsuaren aurrean Sailburuak egindako datu eta baieztapenak zehaztasunik gabekoak izatea. Adibiderako, Ertzainetxetan agenteei buruz emandako datuak ez dira benetakoak. Beasainen ez daude 105 agente, baizik eta 91; Tolosan ez daude 112 baizik eta 94; Zumarragan ez daude 100, baizik eta 93, ezta Bergaran 163, baizik eta 153. Hau da, batez beste agenteen %12 gutxiago, edo beste era batera esanda 20 patruila gutxiago.

Alde horietako udaletxeen babesa duela adierazten duenean: uztailak 15ean Zarautz eta Azkoitia eremuko alkate guztiei Sailburuak deitutako bilerara -guztira 12 izan ziren- bik besterik ez zuten parte hartu, Zarautz eta Aizarnazabalkoek.

Etxebizitzetan lapurretak nabarmen gutxitu direla dioenean, eta hau ezinezkoa izango litzatekela ertzainetxe txiki batekin: ez du esaten, horretarako dispositiborik egokiena zein den agente beraiengandik sortutako ekintza izan zela, eta, gainera, Zarautzko unitatean bertan burutzea erabat egingarria izango zela. Bereziki iraingarria da Zarautzen kudeaketa elkarbanatua ezarri denetik ematen den aldaketa berebizikoa dela ondorioztatzea da, benebenetan berebizikoa Ertzainetxe horrek 28 urtetan zehar egin duen lana izan denean.

Honen aurrean Zumarragako herritarrak azpikeriazko itxiera honek dakarrenaz benetan jakitun al diren galdetzen dugu. Gainera, zerbaitek ondo funtzionatzen badu, eta, batez ere, zerbitzua eskaintzen zaion herritarren aldetik aitortpen adierazgarria badu, zein da eraisteko arrazoia? Zerbitzura dagoen gizartearen aurrean alferrikako eta eraginik gabeko erakunde gisa erakutsi nahi al da? Herritarrengandik urrutiratu nahi al da eta era horretara beste interes batzuk dituen segurtasun pribatuentzako lan-eremuak bidezkotu? Ez dugu partekatzen hauetako aukera bat bera ere. Izan ere, herritarren gogoak ez bait du horrelakorik erakusten, ezta ertzainak beraienak ere, eta, gainera, inolako zalantzarik gabe, eredu hau ezartzekotan, hiri segurtasun eza gehituko da.

Era berean, Sailburuak orain gutxi baieztatzen zuen Ertzainek 2016 Hortzemuga planari buruz ez zutela berea egiten Ertzaintzako sindikatuek zuten ikuspegi ezkorra, eta, baieztapen horiek zehaztasunik gabeak eta eutsiezinak zirela egiaztatu ondoren - izan ere, Ertzaintzako kideei inoiz ez bait zaie galdetu horri buruz zein iritzi duen- idatzi hau sinatzen duten sindikatuek, Plan horri buruz lehen eskuko iritzia jakiteko asmoz, gizatalde horren artean galdetegia egin dugu; zehazki bera ezartzean dakarren ondorioei buruzkoa, bai langile moduan eta baita herritarrei ematen zaien zerbitzuaren aldetik ere.

Idatzi honen bidez, galdetegiaren emaitzak jakinarazten dizugu, orain bai, jakin ezazun lehen eskutik Ertzainen iritzia zein den:

SERVICIO POLICIAL	Nº AGENTES	GRADO DE SATISFACCION							
		DCHOS AGENTE ERTZAINZA				SERVICIO CIUDADANIA			
		OSO ONA	ONA	TXARRA	OSO TXARRA	OSO ONA	ONA	TXARRA	OSO TXARRA
SEGURIDAD CIUDADANA	910	8	14	273	615	8	18	298	586
INVESTIGACION	471	7	17	80	367	4	13	138	316
TRAFICO	77	0	4	32	41	0	4	40	33
RECURSOS OPERATIVOS	36	0	0	23	13	0	0	22	14
OTROS SERVICIOS	42	1	2	12	27	2	1	14	25
TOTALES	1536	16	37	420	1063	14	36	512	974
		%1,04	%2,40	%27,34	%69,20	%0,91	%2,34	%33,33	%63,41

Azaldutakoaren arabaera, eta eragina duen leku erakundeen babesa izango dugulakoan, exijitzen dugu abian dauden egitasmo guztien berehalako gelditzea, eta,aldi berean, berresten dugu zerbitzura dagoen Ertzaintza eredu, prebentziozkoa eta herritarren interesen eta premien gertukoa dena.

Adeitasunez,

**ELA**

**Si.P.E .**

**EUSPEL**